

# Enpresetan eta erakundeetan 2030 Agenda garatzeko gida

2023ko urria

Sustatzailea:

**Agenda 2030**   
Euskadiren konpromisoa

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Laguntzaileak:

2030 Agenda  
**Foroa**  
Euskadi

Iniciativa  
**Guneak**  
Ekimena

KUDEAKETA AURRERATUA  
**EUSKALIT**  
GESTIÓN AVANZADA

**A**

POBREZIARI HOBETO **AURRE**  
EGITEA ETA OPAROTASUNA  
**PARTEKATZEA**

**B**

**BERDINTASUNAREN** ALDE ETA  
DISKRIMINAZIOA SAIHESTEKO  
**GEHIAGO EGITEA**

**C**

HONDAKINAK MURRIZTEA,  
ENERGIA **GUTXIAGO**  
KONTSUMITZEA ETA **GEHIAGO**  
BIRZIKLATZEA

**EZER EZ DA ALDATZEN,**  
**EZER ALDATZEN EZ BADUGU**

Lehen zatia  
**Aurkezpena**

**1** POBREZIA  
DESAGERRARAZTEA



**2** GOSERIK  
EZ



**3** OSASUNA  
ETA ONGIZATEA



**4** KALITATEZKO  
HEZKUNTZA



**5** GENERO  
BERDINTASUNA



**6** UR GARBIA ETA  
SANEAMENDUA



**7** ENERGIA IRISGARRIA  
ETA EZKUTSAGARRIA




**8** LANDUINA ETA  
HAZKUNDE  
EKONOMIKOA



**9** INDUSTRIA,  
BERRIKUNTZA  
ETA AZPIEGITURA



**10** DESBERDINTASUNAK  
MURRIZTEA



**11** HIRI ETA KOMUNITATE  
JASANGARRIAK




**12** EKOIZPEN ETA  
KONTSUMO  
ARDURATSUAK



**13** KLIMAREN  
ALDEKO EKINTZA




**14** ITSASPEKO  
BIZITZA



**15** LEHORREKO  
EKOSISTEMETAKO  
BIZITZA



**16** BAKEA, JUSTIZIA  
ETA INSTITUZIO  
SENDOAK



**17** HELBURUAK  
LORTZEKO  
ALIANZA



# 1. Zer da 2030 Agenda?

·NBEk 2015ean lortutako akordioa da, 2030ean mundu bidezkoagoa, ekologikoa, oparagoa eta baketsuagoa lortzen lagunduko duten garapen jasangarrirako 17 helburu lortzeko.

·193 herrialdek ikuspegi berarekin –mundu eta bizitza jasangarria partekatzea– eta lehentasun berarekin –pobrezia desagerraraztea– sinatutako konpromisoa. Jasangarritasuna eta elkartasuna.

·Akordio horrek, gobernuek, aldundiek eta udalez gain, enpresak, unibertsitateak, gizarte-eragileak edo mota guztietako erakundeak inplikatzeko dituztenak, baita pertsonak ere.

·Euskal erakunde guztiok lehentasuna ematen diogu eraldaketa eta elkartasunerako tokiko konpromiso global horri.

·Eusko Jaurlaritzaren ustez, 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak (GJH) aurrerapenerako eta berdintasunerako kontratu soziala dira Euskadin.

## 2. Zer da **gida** hau?

- Enpresei eta erakundeei Nazio Batuen 2030 Agendarekiko konpromisoa garatzen eta GJHeKin aurrera egiteko klabeak kokatzen laguntzeko tresna.
- Diagnostikoa, antolaketa-hobekuntza eta emaitzen bilaketa kokatzeko esparrua, kudeaketa- eta lehiakortasun-eredu arduratsuen, jasangarrien eta solidarioen bidez.
- Erreferentzia multzo bat, Garapen Jasangarrirako 17 Helburuek gonbidatzen dizkiguten eraldaketetan modu partekatuan, malgutasunez eta progresibitatez aurrera egiteko.

## 3. Nork sustatzen du **gida** hau?

- Lankidetzan lan zabal baten emaitza da:
  - Eusko Jaurlaritzaren Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren sustapena;
  - Euskaliten aholkularitza eta "Kudeaketa aurreratuaren ereduaren" garapenean duen esperientzia;
  - 2030 Agenda Euskadi Foroaren Guneak eremuaren zein Euskaliteko kolaboratzaile-sareetako ehun bat erakunderen parte-hartzea.

## 4. Zergatik da garrantzitsua enpresek eta erakundeek **2030 Agendarekin** duten konpromisoa?

- Erantzukizunagatik eta elkartasunagatik: munduak, planetak, ingurumenak eta egoera ahulenean dauden pertsonak eta kolektiboak behar dute.
- Adimenagatik: garai konplexu eta zalantzarik honetan, oinarriko helburuen agenda bera bate-ratzen badugu soilik egin dezakegu aurrera eta aurre egin diezaiekegu erronka globalei eta tokiko erronkei.
- Norberaren interesagatik: enpresa edo erakunde bakoitzaren garapenak, baita laguntza pu-blikoek ere, kudeaketa arduratsua, iraunkorra eta solidarioa eskatuko dituzte.

## 5. Zer dakar **gida** honek?

Gida honek mota guztietako enpresa eta erakundeei 2030 Agendarekiko konpromisoan sartzeko aukera ematen die, hiru fasetan:

- Hurbiltze-fasea**, GJHekiko loturan hutsetik hasten diren enpresa edo erakundeentzat. (Fase honetako edukia liburuxka honetan deskribatzen da)
- Hasierako fasea**, 2030 Agendaren oinarritzko ezagutza duten eta hura aplikatzen hasteko prest dauden erakundeentzat. (Liburuxka honetan azaltzen da edukia)
- Sakontze-fasea**, ibilbideren bat egin duten eta aurrera egin nahi duten enpresentzat edo erakundeentzat. (Edukia web-aplikazio baten bidez garatzen da)

## 6. Zertarako balio du **gida** zehatz honek?

Gida honetan jasotako hiru faseetako edozeinetan, erabiltzen duen enpresak edo erakundeak tresna bat aurkituko du honako hauetarako:

- autoebaluazioa eta diagnostikoa**, GJHekiko abiapuntua ulertzeko hausnarketa egituratua errazten duten galderen bidez;
- hobekuntza-helburuak zehaztea**, hau da, garapen arduratsuaren, jasangarriaren eta solidarioaren aldeko aurrerapenean bultzatu behar diren aldatetarik identifikatzeko;
- emaitzen neurketa**, "inpaktuaren adierazleak (kanpokoak)" eta "kudeaketa-adierazleak (barnekoak)" erabiliz, erakunde bakoitzari gehien eragiten dioten GJHekin lotuta.

## 7. **Gida** honen gako nagusiak

- Enpresa edo erakunde bakoitzaren unera egokitu daiteke. Berdin balio du, eta beti progresibotasun-klabearekin, bai hasten den erakunde batentzat, bai GJHekin ibilbidea duen beste batentzat.
- Erakunde bakoitzaren errealitatera egokitu daiteke. Ez du planteatzen erakunde bakoitzak 17 GJHei heltzea, eta iradokitzen du haien ezaugarri zuzenean eragiten dietenekin lan egitea.
- Zeharkakoa erakunde mota guztietan. Enpresa edo erakunde handiek, txikiek, publikoek, pribatuek eta jarduera-sektore guztiek aprobetxa dezakete.





**Bigarren zatia**

## **Aplikazioa**

**I. Lehen fasea, [hurbiltzekoa](#)**

**II. Bigarren fasea, [hastapeneko](#)**

**III. Hirugarren fasea, [sakontzekoa](#)**



# I. Lehen fasea, **hurbiltzekoa**

## •Erakunde hartzaileak

·GJHekiko loturan hutsetik hasten diren enpresak edo erakundeak.

## •Helburua

·2030 Agendarekiko konpromiso pertsonalaren eta antolaketa-konpromisoaren esanahiarekin, edukiekin, planteamenduarekin eta antolaketa-inplikazioekin ohitzea.

## •Iraupena

·Hilabete eta bi hilabete artean.

## •Jardueren proposamena

I. 2030 Agendari buruzko informazioa eskaintzea eta banatzea erakundeko kideen artean. Liburuxka hauxe bera lehen kontaktua izan daiteke.

II. Erakundeko kideen artean partekatzea enpresaren beraren edo erakundearen kudeaketan 2030 Agendarekiko konpromisoa garatzeko proposamena.

III. Erakundeko kideei 2030 Agendari buruzko informazio-hitzaldia edo bideo bat eskaintzea, solasaldia eta zalantzen eta ikuspegien trukea ahalbidetzeko.

IV. "2030 Agendaren ABC-a" tutoretza-plana garatzea. Modu autonomoan edo kanpoko laguntza eskatuta egin daiteke. (Informazioa hemen: [gida2030agenda@euskadi.eus](mailto:gida2030agenda@euskadi.eus) y 945 117 434)

## •Ariketa praktikoa: "2030 Agendaren ABC-a" tutoretzaren garapena

·Ariketa praktikoa honetan, enpresa edo erakunde bakoitzak honako hauek identifikatu beharko ditu, gutxienez:

-2030 Agendaren ABC-aren edukiekiko konpromisoa neur dezaketen hiru adierazle.

-eta konpromiso hirukoitz horretan aurrera egitea edo hobetzea ahalbidetuko luketen hiru helburu.

(Ikusi hurrengo bi orrialdeetako fitxak)



# A POBREZIARI HOBETO AURRE EGITEA ETA OPAROTASUNA PARTEKATZEA

## •Gure entitatean eta bertatik "A" konpromisoa neur lezaketen adierazleak

Enpresako edo erakundeko kideak gonbidatuta zaudete, gutxienez, "A: Pobrezia-ri hobeto aurre egitea eta oparotasuna partekatzea" konpromisoa neur dezaketen hiru adierazle identifikatzera.

·Adibide gisa: Beharra duten sektoreekin lankidetzan aritzera bideratutako aurrekontuaren ehunekoa.

-1. adierazlea: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

-2. adierazlea: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

-3. adierazlea: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

-Beste adierazlea: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

## •Gure enpresaren edo erakundearen barruan konpromiso horretan aurrera egitea edo hobetzea ahalbidetuko luketen hiru helburu

Orain, konpromiso horretan aurrera egitea edo hobetzea helburu duten gutxienez hiru helburu definitzera gonbidatzen zaituztegu.

·Adibide gisa: zailtasun-egoeran dauden X gazteri praktiketako prestakuntza eskaintzea.

-1. helburua: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

-2. helburua: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

-3. helburua: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

-Beste helburuak: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

# B

## BERDINTASUNAREN ALDE ETA DISKRIMINAZIOA SAIHESTEKO GEHIAGO EGITEA

### •"B" konpromisoa gure entitatean eta bertatik neur dezaketen adierazleak

Gutxienez, konpromiso hau neur dezaketen hiru adierazle identifikatzea proposatzen dizuegu: "B: Berdintasunaren alde eta diskriminazioa saihesteko gehiago egitea".

·Adibide gisa: desgaitasuna duten pertsonen oztokoak kentzeko garatutako ekintzak.

-1. adierazlea: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

-2. adierazlea: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

-3. adierazlea: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

-Beste adierazleak: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

### •Gure enpresaren edo erakundearen barruan konpromiso horretan aurrera egitea edo hobetzea ahalbidetuko luketen hiru helburu

Orain, konpromiso horretan aurrera egitea edo hobetzea ahalbidetuko luketen gutxienez hiru helburu zehaztea iradokitzen dizuegu.

·Adibide gisa: Erakundea osatzen duten pertsonen genero-berdintasunari buruzko prestakuntza eskaintzea..

-1. helburua: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

-2. helburua: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

-3. helburua: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

-Beste helburuak: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_



# HONDAKINAK MURRIZTEA, ENERGIA GUTXIAGO KONTSUMITZEA ETA GEHIAGO BIRZIKLATZEA

•“C” konpromisoa gure entitatean eta bertatik neur dezaketen adierazleak.

Azkenik, “C: Hondakinak murriztea, energia gutxiago kontsumitzea eta gehiago birziklatzea” konpromisoa neur dezaketen hiru adierazle, gutxienez, identifikatzea proposatzen dizuegu.

·Adibide gisa: Gure erakundeak sortzen duen hondakin ez-birziklagarriaren bolu-  
mena kuantifikatzea.

-1. adierazlea: \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

-2. adierazlea: \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

-3. adierazlea: \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

-Beste adierazleak: \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

•Gure enpresaren edo erakundearen barruan konpromiso horretan aurrera egi-  
tea edo hobetzea ahalbidetuko luketen hiru helburu.

Bukatzeko, konpromiso horretan aurrera egitea edo hobetzea ahalbidetuko  
luketen hiru helburu definitzea iradokitzen dizuegu.

·Adibide gisa: helburu gisa energia-kontsumoa murrizteko ehuneko bat ezartzea.

-1. helburua: \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

-2. helburua: \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

-3. helburua: \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

-Beste helburuak: \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

## II. Bigarren fasea, **hastapeneko**a

### • Erakunde hartzaileak

·2030 Agendari buruzko oinarritzko ezagutza duten eta hura aplikatzen hasteko prest dauden erakundeak.

### • Helburua

·(1) autodiagnostikoaren metodologia ezagutzea eta probatzea, (2) hobekuntza-helburuak identifikatzea eta (3) aurrerapenen eta emaitzen jarraipena egitea GJHekin lotutako adierazleen bidez.

### • Iraupena

·Hiru hilabete.

### • Jardueren proposamena

I. Erakundea osatzen duten pertsonen artean partekatzea 2030 Agendarekiko konpromisoa enpresaren edo erakundearen kudeaketan garatzeko proposamena.

II. Barne-dokumentazioa eskaintzea, 2030 Agendarekiko konpromisoa ezagutzeko eta entseatzeko. Liburuxkaren atal honen edukia abiapuntu bat izan daiteke.

III. Erakundea osatzen dutenei 2030 Agendari eta GJHak enpresa eta erakundeetan aplikatzeari buruzko berariazko prestakuntza eskaintzea. (Informazioa hemen: gida2030agenda@euskadi.eus eta 945 117 434).

IV. "Gure erakundeetan GJHak garatzeko antolaketa-entrenamenduaren prozesua" tutoretza garatzea.

### •Ariketa praktikoa: "Gure erakundeetan GJHak garatzeko antolaketa-entrenamenduaren prozesua" tutoretzaren garapena

·Ariketa praktikoa honetan, enpresa edo erakunde bakoitzak prozesu bat garatuko du, eta prozesu horretan, funtsean, bi ariketa egin beharko ditu GJH bakoitzarekin.

-GJH bakoitzak enpresa edo erakunde bakoitzaren jarduera-esparruarekin eta aukerekin duen lotura-maila ezartzea.

-GJH bakoitzerako adibide gisa planteatzen diren adierazleak eta helburuak baloratzea eta, hala badagokio, birformulatzea, gehitzea edo zuzentzea.

Dinamika hori ordubeteko lau saiotan egin daiteke. Lehenengo hiruretan bost GJH lantzen dira, eta laugarrenean 16. eta 17. GJHak eta ondorioak lantzen dira.

(Ikus GJHen arabera fitxak hurrengo orrialdeetan)





## 1. GJH: POBREZIA DESAGERRARAZTEA

Enpresa edo erakunde baten lana pertsona kalteberen ahalduz ekonomikora, enplegua sortzera eta bere eragin-ingurunean pobrezia murrizten laguntzera bidera daiteke, zuzenean edo gizarte-erakundeekin eta/edo garapenerako lankidetzako erakundeekin lankidetzan.

•1. ariketa. Baloratu 0tik 10era helburu honek zure erakundearen jardura-eremuarekin eta aukerekin duen lotura. Zero da inolako harremana, eta 10 erabateko lotura.

0      1      2      3      4      5      6      7      8      9      10

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformulatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
Pobrezia-egoeran dauden pertsonen laguntzea.	Pobrezia-egoeran dauden eta laguntza jaso duten pertsonen kopurua.
Pobreziaren arloetan enplegua sortzea sustatzea.	Sortutako enpleguen kopurua.

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Pobreziako eremuetan kontratazioa sustatzea.	Tokiko erakundeekin egindako akordioen kopurua.
Pobrezia-egoeran dauden pertsonen laguntzeko sa-reak sortzea edo horietan parte hartzea.	Egindako laguntza-jarduerekin kopurua.



## 2. GJH: GOSERIK EZ

Edozein enpresak edo erakundeak lagundu dezake “goserik ez” helburua lortzen. Bere ingurune hurbilean edo ikuspegi global batekin egin dezake, garapenerako lankidetzarekin lotutako erakundeekin elkarlanean. Nekazaritza-, elikagaigintza- edo bioteknologia-arloei lotutako erakundeek zuzeneko eragina izan dezakete GJH honetan, eraginkortasuna, nekazaritza-jardunbideen iraunkortasuna, elikagaien irisgarritasuna eta abar sustatzen dituzten proiektuen garapenaren bidez.

•1. ariketa. Baloratu Otik 10era helburu honek zure erakundearen jarduera-eremuarekin eta aukerekin duen lotura. Zero da inolako harremana, eta 10 erabateko lotura.

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformulatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
Malnutrizioaren beherakadan laguntzea, garapenerako lankidetzako erakundeen nazioarteko proiektuen bidez.	Onuradun izan daitezkeen pertsonen kopurua.
Elikagaiak lantzeko bidezko merkataritzan eta lurzoruen erabilera arduratsuan laguntzea.	Ziurtatutako produktu iraunkorren hornitzaileen kopurua.

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Sare logistiko propioak baliatzea elikadura-hornidura sustatzeko.	Erakundeekin egindako akordioen kopurua.
Lehengaien erosketa jasangarria.	Jatorri jasangarria ziurtatuta duten lehengaien %.



## 3. GJH: OSASUNA ETA ONGIZATEA

Helburu hori lortzeko, antolaketa-praktikak egin daitezke, beren erakundeetan edo ingurunean lan egiten duten pertsonen osasun-inpaktu negatiboak ulertzeko, kontrolatzeko eta arintzeko. Era berean, ikerketa-proiektuen garapenean, kolektibo kalteberen osasun-sarbidean, "gaixotasun arraroak" dituzten kolektiboak laguntzean eta abarretan lan egiten duten erakundeekin lankidetzan egindako proiektuak har daitezke kontuan.

•1. ariketa. Baloratu 0tik 10era helburu honek zure erakundearen jarduera-eremuarekin eta aukerekin duen lotura. Zero da inolako harremana, eta 10 erabateko lotura.

0      1      2      3      4      5      6      7      8      9      10

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformulatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
Tokiko erakundeekin lankidetzan aritzea pertsonen osasuna eta ongizatea hobetzeko ekimenetan.	Lankidetzakopuruak.
Osasun-arloko erakundeei edo kanpainei laguntzea.	Lankidetzakointzen kopurua.

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Ekipoek, makinek eta prozesuek erakundeko pertsonen osasunean eta ongizatean dituzten arriskuak identifikatzea.	Pertsonen erakundeko osasunari eta ongizateari buruz duten gogobetetasuna.
Osasunari eta segurtasunari buruzko prestakuntza indartzea eta parte-hartzea sustatzea.	Ordu-kopurua/Ikastaro-kopurua/ Prestakuntza jaso duten pertsonen %.



## 4. GJH: KALITATEZKO HEZKUNTZA

Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa lortzen laguntzea, pertsonen bizitza hobetzeko eta bizitza osoan zehar hezteko aukerak sustatzeko. Ildo horretan aurrera egiten lagunduko duten egiturak, edukiak, praktikak eta abar garatzeko eta/edo hezkuntzarako sarbidea izateko antolakundeak ematen duen laguntza (zuzenean edo garapenerako laguntzen duten erakundeekin, organismoekin eta entitateekin lankidetzan) kontuan har daiteke.

•1. ariketa. Baloratu 0tik 10era helburu honek zure erakundearen jarduera-eremuarekin eta aukerekin duen lotura. Zero da inolako harremana, eta 10 erabateko lotura.

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformulatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
Laneratzeko gaikuntza sustatzea.	Praktiketan dauden pertsonen kopurua.
Egoera ahulean dauden kolektiboetako pertsonak hezkuntzara eta gaikuntzara irits daitezen sustatzea.	Onuradunen kopurua.

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Bizitzan zeharreko prestakuntza bultzatzea.	Urtean prestakuntza egiten duten erakunde-ko pertsonen %.
Desberdintasun-egoeran dauden kolektiboak ikasteko beka-programetan laguntzea.	Akordio-kopurua eta aurrekontua.



## 5. GJH: GENERO BERDINTASUNA

Erakundeek eginkizun erabakigarria dute helburu horretan aurrera egiteko, emakumeen eskubideak errespetatzeko eta maila eta funtzio guztietan genero-berdintasunaren aldeko inpaktu positiboa maximizatzeko erantzukizuna bermatuz.

•1. ariketa. Baloratu 0tik 10era helburu honek zure erakundearen jarduera-eremuarekin eta aukerekin duen lotura. Zero da inolako harremana, eta 10 erabateko lotura.

0      1      2      3      4      5      6      7      8      9      10

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformulatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
Zuzendaritza-mailetan emakumeak sar daitezen bultzatzea.	Zuzendaritza-postuetan dauden emakumeen %.
Neska eta emakume gazteen bokazio teknikoak sustatzea.	Egindako ekitaldien edo jarduketan kopurua.

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Genero-berdintasuna sustatzen duten erakundeekiko edo programekiko lankidetzak indartzea.	Kolaborazio-kopurua.
Genero-berdintasunaren arloko barne-prestakuntza sustatzea.	Prestakuntza-kopurua.

## 6 UR GARBIA ETA SANEAMENDUA



# 6. GJH: UR GARBIA ETA SANEAMENDUA

Erakundeek eta, bereziki, enpresek zuzeneko eragina dute eskura dauden baliabide hidrikoen kalitatean eta kantitatean, bai kontsumoagatik, bai baliabide hidrikoetan hondakinak ezabatzeagatik. Erakundearen barruan uraren kontsumoa eta saneamendua murriztea sustatzen duten ekintzak ezartzea garrantzitsua izan daiteke GJH horretan laguntzeko.

•1. ariketa. Baloratu Otik 10era helburu honek zure erakundearen jarduera-eremuarekin eta aukerekin duen lotura. Zero da inolako harremana, eta 10 erabateko lotura.

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformulatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
Baliabide hidrikoen erabilera minimizatzea.	Ur-baliabideen kontsumoaren murrizketaren ehunekoa.
Saneamendu-sisteman hobekuntzak identifikatzea.	Identifikatutako jarduketaren kopurua.

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Ur-baliabideak aurrezteko hobekuntzak sartzea.	Ezarritako hobekuntzen kopurua.
Ur-kontsumoa murrizteko jardunbide egokiak ezagutzea.	Identifikatutako jardunbide egokiaren kopurua.



## 7. GJH: ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA

Enpresek eta erakundeek zeregin garrantzitsua dute energia-iturrien erabilera efizientean, edo energia-iturri berriztagarrien garapena handitzea ahalbidetzen duten teknologien erabileran, finantzaketan edo garapenean.

•1. ariketa. Baloratu 0tik 10era helburu honek zure erakundearen jarduera-eremuarekin eta aukerekin duen lotura. Zero da inolako harremana, eta 10 erabateko lotura.

0      1      2      3      4      5      6      7      8      9      10

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformulatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
Energia-kontsumoa murriztea.	kW-ko kontsumoaren murrizketaren %. CO <sub>2</sub> isurketen murrizketa (%).
Iturri berriztagarrien energia-kontsumoa handitzea.	Iturri berriztagarrietatik datorren energia-kontsumoaren %.

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Energia aurrezteko jardunbide egokien barne-hedapena indartzea.	Ekintza-kopurua/ordu-kopurua/pertsonen %.
Instalazioak energia-iturri berriztagarri berrietara egokitu daitezzen lortzea.	Ordezkatutako ekipamenduen %.



## 8. GJH: LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Helburu horren ondorioz, enpresak eta erakundeak komunitatearen garapen ekonomikoari eta sozialari laguntzeko prest daude, hazkunde ekonomiko iraunkorra sustatuz eta lan-baldintza duinak sustatuz eremu eta leku guztietan. Talde kalteberetan oinarritutako ekintzen bidez ere lagun dezakete (50 urtetik gorakoak, gazteak, bazterketa-arriskuan dauden pertsonak...), lan-merkatuan sartzeko trebetasunak eskura ditzaten.

•1. ariketa. Baloratu 0tik 10era helburu honek zure erakundearen jarduera-eremuarekin eta aukerekin duen lotura. Zero da inolako harremana, eta 10 erabateko lotura.

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformulatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
Langabezia murrizten laguntzea eta iraupen luzeko langabeei, 50 urtetik gorakoei eta gazteei lan-aukerak ematea.	Kontratutako langabeen kopurua.
	Iraupen luzeko langabeziaren murrizketaren %.
	30 urtetik beherakoen % kontratazioa.
Lege-estaldura egokirik ez duten herrialdeetako filialetan lan-harreman egokiak ezartzen laguntzea.	Langile onuradunen kopurua.

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Enplegu-baldintza duinen alde egitea, enplegu-kalitateari buruzko akordioen bidez.	Akordio-kopurua.
Enplegua sustatzeko jardunbide egokiak identifikatzea.	Identifikatutako jardunbide egokien kopurua.



## 9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA



# 9. GJH: INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA

Enpresek eta erakundeek beren eta besteen praktikan eragina duten ekintzen bidez laguntzen dute helburu horretan, produktuen eta zerbitzuen berrikuntza eta garapena babestuz, azpiegitura jasangarria eskaintzeko.

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformulatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

•Ejercicio 2. En el cuadro siguiente tienes varios ejemplos de objetivos de mejora y de indicadores de seguimiento. Valora y, en su caso, reformula, añade o corrige estos ejemplos.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
Ingurumen-jasangarritasunean inpaktua sortzea berrikuntza-proiektuen bidez.	CO <sub>2</sub> murrizketa, berrikuntza aplikatzeagatik.
Ekonomia zirkularra bultzatzea, azpiproduktuetatik eratorritako produktu berriak sortuz.	Produktu berri gisa aprobetxatutako hondakinen bolumena.

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Berrikuntzak garatzeko proiektuak / lankidetzak gehiago abiaraztea.	Proiektuen edo kolaborazioen kopurua.
Sortutako ezagutza zabaltzeko jardunaldietan / azoketan / biltzarretan parte hartzea areagotzea.	Jardunaldi / azoka / kongresu kopurua.



## 10. GJH: DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA

Aukera-berdintasunari laguntzeko praktikak populazio kalteberen beharretara bideratutako produktuak eta zerbitzuak diseinatuz eta ezarriaz implementatzen badira, enpresek helburu horretan lagundu ahal izango dute. Bazterketa-arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea, lan-merkatuan sartzeara... sustatzen duten elkarteekin lan egitea ere ekintza eraginkorrak dira ildo horretan.

•1. ariketa. Baloratu Otik 10era helburu honek zure erakundearen jardura-eremuarekin eta aukerekin duen lotura. Zero da inolako harremana, eta 10 erabateko lotura.

0      1      2      3      4      5      6      7      8      9      10

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformulatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
Desgaitasuna duten pertsonen integrazioan laguntzea.	Desgaitasuna duten pertsona kontratatuen kopurua eta ehunekoa.
Bazterketa-arriskuan dauden kolektiboetako pertsonak gizarteratzen laguntzea.	Bazterketa-arriskuan dauden kolektiboetatik kontratatutako pertsonen kopurua eta ehunekoa.

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Inklusioaren alde lan egiten duten erakundeekin etengabeko harremana izatea.	Akordioen eta lankidetzen kopurua.
Desgaitasuna duten pertsonak sartzeko barne-egokitzapena erraztea.	Prestatutako pertsonen kopurua/egokitutako lanpostuen %.



## 11. GJH: HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK

Eraikinetarako, garraiorako eta berdeguneetarako sarbidea hobetzen duten produktu eta zerbitzuen ikerketarekin, garapenarekin eta barne-aplikazioarekin hartutako konpromisoak eta kultura- eta natura-ondarearen alde lan egiten duten erakundeei emandako laguntzak GJH horri egindako ekarpena hobetu dezakete.

•1. ariketa. Baloratu 0tik 10era helburu honek zure erakundearen jarduera-eremuarekin eta aukerekin duen lotura. Zero da inolako harremana, eta 10 erabateko lotura.

0      1      2      3      4      5      6      7      8      9      10

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformulatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
Inguruneko ingurumen-kalitatea hobetzea.	Ekimen-kopurua.
Ingurunean eta enpresaren edo erakundearen barruan irisgarritasuna lortzen laguntzea.	Ekimen-kopurua.

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Elkarteekin edo erakundeekin lankidetzan aritzea herritarren bizi-kalitatea hobetzeko ekimenetan.	Ekimen-kopurua.
Erakundearen mugikortasun iraunkorra lortzen laguntzea.	Garraio pribatuaren erabilera murriztea/ garraio publikoaren edo partekatuaren erabilera handitzea.



## 12. GJH: EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK

Teknologia eta material alternatiboen erabilera bultzatuko duten negozio-eredu arduratsuak ezartzeak baliabideak minimizatzea eta hondakinen sorrera murriztea eragin dezake, ingurumen-onurak sustatuz.

•1. ariketa. Baloratu 0tik 10era helburu honek zure erakundearen jarduera-eremuarekin eta aukerekin duen lotura. Zero da inolako harremana, eta 10 erabateko lotura.

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformulatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
Sortutako hondakinak murriztea.	Hondakin gutxituen tonak eta %.
Elikagaien xahuketa murriztea.	Elikagaien sobera (t).
	Soberako janariaren %.
	Soberako elikagai-aprobetxamenduaren onuradun diren erakundeen / pertsonen kopurua.

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Materialen berrerabilera areagotzea.	Kop. / t / berrerabilitako materialen %.
Erabili eta botatzeko materialak ordeztzeko hobekuntzak txertatzea.	Txertatutako hobekuntzen kopurua.



## 13. GJH: KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Enpresek eta erakundeek GJH horretan laguntzen dute, klima-aldaketari buruzko ekintzarekin lotutako irtenbideak garatuz eta ezarriz, bai eremu horretan eragina duten ekintza zehatzen bidez, bai heziketa sustatuz eta herritarrak sentsibilizatuz.

•1. ariketa. Baloratu 0tik 10era helburu honek zure erakundearen jarduera-eremuarekin eta aukerekin duen lotura. Zero da inolako harremana, eta 10 erabateko lotura.

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformulatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
Erakundearen jardueran deskarbonizazioari laguntzen dioten hobekuntzak txertatzea.	CO <sub>2</sub> isurien murrizketaren %.
Eredu zirkularrak bultzatzea.	Ekimenen kopurua.

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Ekintza klimatikoarekin lotutako proiektuen garapena sustatzea edo babestea.	Proiektuen kopurua. Proiektuetan parte hartzen duten erakundearen kopurua.
Ekintza klimatikoaren alde lan egiten duten erakundeekin edo organismoekin lankidetzan aritzea.	Lankidetzakopurua.



## 14. GJH: ITSASPEKO BIZITZA

Helburu horri egindako ekarpenak, ziurrenik, eragin handiagoa izango du itsas- eta arrantza-sektoreko edo kostaldean kokatutako enpresetan edo erakundeetan. Itsasoko eta kostaldeko ekosistemak babesteko praktikak ezartzeari lotuta dago, baita ikerketa teknologikoari eta itsas baliabideen kudeaketa jasangarriaren eta justuaren aldeko ekimenei ere.

•1. ariketa. Baloratu 0tik 10era helburu honek zure erakundearen jarduera-eremuarekin eta aukerekin duen lotura. Zero da inolako harremana, eta 10 erabateko lotura.

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformulatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
Itsasora isurketak murriztea.	Isurketen murrizketaren %.
Arrantza-jarduera iraunkorraren errendimendua hobetzea.	Artisau-arrantzaren eta arrantza iraunkorren produktibitatearen hobekuntzaren %.

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Eragiketetan hobekuntzak egitea, itsasora isurketarik ez egiteko.	Hobekuntza-kopurua.
Arrantza-jarduera iraunkorrari laguntzeko ikerketa-proiektuak sustatzea.	Ikerketa-proiektuen kopurua.



## 15. GJH: LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA

Enpresek eta erakundeek teknologiek konpromisoa hartzea eta ekosistema naturalaren degradazioa saihesteko eta biodibertsitatea indartzen laguntzeko ekintzak edo kanpainak garatzea helburu hori lortzen laguntzen duten jardunbideak dira.

•1. ariketa. Baloratu 0tik 10era helburu honek zure erakundearen jarduera-eremuarekin eta aukerekin duen lotura. Zero da inolako harremana, eta 10 erabateko lotura.

0      1      2      3      4      5      6      7      8      9      10

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
Baso-azalera handitzea sustatzea.	Baso-masaren gehikuntzaren %.
Lehorreko ekosistemak hobetzea.	Egindako jardueren kopurua (kanpainak, sentsibilizazioa, prestakuntza...).

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Basoberritzearen aldeko ekimenak sustatzea.	Ekimen kopurua. Landatutako zuhaitz kopurua.
Lurreko ekosistemak hobetzeko jardunbide egokiak identifikatzea.	Ezarritako jardunbide egokien kopurua.



## 16. GJH: BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK

Helburu horren xedea da garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, bai eta justiziarako sarbidea erraztea eta erakunde eraginkorrak, arduratsuak eta inklusiboak sortzea ere. Enpresek eta erakundeek erakundeen funtzionamendu egokia lortzen lagun dezakete, partaidetza eta erabilera egokitik hasi eta gobernantza gardena, eraginkorra, inklusiboa eta giza eskubideak errespetatuko dituen bermatuko duten neurriak ezartzeraino.

•1. ariketa. Baloratu 0tik 10era helburu honek zure erakundearen jarduera-eremuarekin eta aukerekin duen lotura. Zero da inolako harremana, eta 10 erabateko lotura.

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformulatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
Enpresa edo erakundea giza eskubideekiko koherentziarekin lotuko duten konpromisoak hartzea.	Konpromiso-kopurua.
Giza eskubideen defentsarako tokiko edo nazioarteko ekimenei edo erakundeei laguntzea.	Garatutako ekimenen kopurua.

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Erakundearen gobernantza parte-hartzailea bultzatzea.	Gobernantzan parte hartzeko ereduarekiko gogobetetasuna.
Erakundearen kudeaketaren gardentasuna sustatzea.	Erakundearen barne-funtzionamenduarekiko gogobetetasuna.





## 17 GJH: HELBURUAK LORTZEKO ITUNAK

GJH honetan ekintzak ezartzeak aukera ematen du gainerako GJHetan aurrera egiteko, eta, beraz, aliantzak sustatzea eta sortzea aukera bat izan daiteke informazioa, ezagutza eta teknologiak trukatzeko, aukera bateratuak identifikatu ahal izateko.

•1. ariketa. Baloratu 0tik 10era helburu honek zure erakundearen jarduera-eremuarekin eta aukerekin duen lotura. Zero da inolako harremana, eta 10 erabateko lotura.

0      1      2      3      4      5      6      7      8      9      10

•2. ariketa. Koadro honetan, hobekuntza-helburuen eta jarraipen-adierazleen zenbait adibide dituzu. Baloratu eta, hala badagokio, birformulatu, gehitu edo zuzendu adibide horiek.

### ADIBIDEAK

ERAGINAREN HELBURUA	ERAGINAREN ADIERAZLEA
GJHekiko konpromisoa zabaltzen laguntzea.	Egindako dibulgazio-jardueren kopurua.
GJHak bultzatzeko jardunbide egokiak identifikatzen laguntzea.	Identifikatutako lankidetzak kopurua / jardunbide egokiak kopurua.

### ADIBIDEAK

BARNE-KUDEAKETAREN HELBURUA	BARNE-KUDEAKETAREN ADIERAZLEA
Beste erakunde / hornitzaile / aliatu batzuekin partekatutako aliantzak eta proiektuak garatzea.	Bateratutako aliantzen eta proiektuen kopurua.
Erakundeko pertsonen GJHak ezagutzeko eta aliantzetan parte hartzeko prestakuntza ematea.	Parte-hartzaileen kopurua.

## Ondorioen ezartzea

Lehena. Identifikatu, gutxienez, gure enpresaren edo erakundearen jarduera-eremuarekin eta aukerekin lotura zuzenena duten 5 GJHak.

Bigarrena. Helburu horiek "entrenamendu" honetan identifikatu diren adierazle eta hobekuntza-helburuekin lotzea.

GJH	Adierazleak	Hobekuntza-helburuak
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
Besteak.		

## III. Hirugarren fasea, sakontzekoa

### •Erakunde hartzaileak

·Ibilbideren bat egin duten eta aurrera egin nahi duten enpresak edo erakundeak.

### •Helburua

·Enpresen eta erakundeen kudeaketan modu estrukturalen honako metodologia hauek txertatzea: (1) autodiagnostikoa, (2) hobekuntza-helburuen identifikazioa eta (3) aurrerapenen eta emaitzen jarraipena, GJHekin lotutako adierazleen bidez.

### •Iraupena

·Mugagabea, urteko ebaluazioarekin.

### •Jarduerak proposatzea

·Web-aplikazio baten bidez eskuratu daiteke deskribapena: [www.euskalit.net/agenda2030](http://www.euskalit.net/agenda2030).

Esteka honetan sartzean, erakundeek web-plataforma batean eman dezakete alta. Inskripzioa egin ondoren, EUSKALITek erabiltzaile bat eta pasahitz bat emango dizkio erakunde bakoitzari, eta GJHak kudeaketan txertatzeko esparrura sartzeko aukera emanez.

### •Fase honen mekanikari buruzko sarrera laburra

·Kudeaketan GJHak barnertzeko Markoa jarraiki, erakunde bakoitzak GJHen eta haien kudeaketa-sistemaren loturari buruzko autodiagnostiko bat egin dezake, etorkizunean egin daitezkeen ekintzak identifikatuz eta atal bakoitzean duen aurrerapen-maila posizionatuz.

·Erakundeak kudeaketan GJHak txertatzeari buruzko kanpo-ebaluazio bat eska diezaioke EUSKALITi, autodiagnostikoa kontrastatzeko, osatzeko eta aberasteko, GJHak Ebaluatzeko Klubeko adituen parte-hartzearekin.

·Erakundeak hobekuntza-plan bat diseina dezake, aurreko hausnarketaren eta ebaluazioaren ekarpenak, aurrerapen-maila eta ekintzak lehenesteko helburuen gaineko inpaktua kontuan hartuta.

### •Laguntza eta kanpo-ebaluazioa

·Sakontze-fase hau garatzeko kanpoko laguntza nahi duten eta beren autoebaluazioa kanpo-ebaluazio batekin osatu nahi duten enpresek eta erakundeek GJHen eta Kudeaketa Aurreratuaren Klubaren laguntza izan dezakete. Kluba EUSKALITek sustatu zuen 2023an. Informazioa hemen: [www.euskalit.net/agenda2030](http://www.euskalit.net/agenda2030).

